

-ubV epentesiaren bilakabide historikoaz¹ *On the historical evolution of the epenthesis -ubV*

Eneko Zuloaga*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: It has been a long time since Basque dialectologists investigated, from a synchronic point of view, a whole series of vowel interaction phenomena grouped under the name of *euphonies*. However, the investigation of the history of these phenomena has been relegated among Basque diachronists due, among other reasons, to the fact that they are relatively modern and do not allow us to reconstruct prehistoric stages. In this paper, I present the historical evolution of epenthetic *-ubV*, an innovation that emerged in the Old Basque period. Specifically, I have analyzed the first testimonies, the texts and places where it is documented, and the historical trends of its use, taking into account both folk varieties and the printed and canonical written tradition.

KEYWORDS: historical dialectology; historical phonology; epenthetic *-ubV*; Basque.

LABURPENA: *Garai batean bokal-eufonia deitutako fenomeno-multzoari buruzko ikerketa ugari egin ziren euskal dialektologia sinkronikoaren esparruan, baina fenomeno horien azterketa diakronikoa ez dago hain aurreratuta, arreta gutxiago eman baitzaie, fenomeno historikoak diren heinean historiaurrea berreraikitzeke aukerarik ematen ez dutela eta. Lan honek -ubV ereduko epentesiaren bilakabide historikoaren berri dakar. Zehazki, epentesiaren lehenengo lekukotasunak, ageri den lurraldeak eta erabileraren joera historikoa(k) ditu aztergai: berrikuntza Euskara Zaharraz geroztik sortu eta hedatu zen eta, testu-corpus historikoa lagun, garai horietan izandako bilakaera aurkezten da hemen, bai hizkera herrikoiei begira, bai euskalkietako tradizio inprimatu kanonikoan izandako lekuari begira.*

HITZ GAKOAK: *dialektologia historikoa; fonologia historikoa; -ubV epentesia; euskara.*

¹ Lan honek «*Monumenta Linguae Vasconum* VI: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta «Historia de la lengua vasca y Lingüística histórico-comparada» (IT1344-19) ikerketa-taldearen babesa izan du.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Eneko Zuloaga. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – eneko.zuloaga@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-2579-6327

Nola aipatu / How to cite: Zuloaga, Eneko (2023). «-ubV epentesiaren bilakabide historikoaz», *ASJU*, 57 (1-2), 999-1017. (https://doi.org/10.1387/asju.25980).

Jasoa/Received: 2022-11-18; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Euskal dialektologiari buruzko ikerketak irakurrita, agerikoa da hiatoetako bokal-bilkuretako fenomenoari eman zaien garrantzia: XIX. mendean, Zabalak (1848) Bizkaiko hizkerak bereizteko baliatu zituen eta, Elorduiren (1995) arabera, Bonapartek ere berebiziko garrantzia eman zien, Zabalaren azalpeni jarraikiz, *Langue basque et langues finnoises* (1862) eta *Phonologie de la langue basque* (1868) saioetan.

XX. mendean ere hainbat ikertzaile arduratu dira hiatoetako bokal-bilkuretako fenomenoaz: derrigor aipatu behar dira de Rijk (1970) Bizkaiko euskarari buruz eginiko saioa, lan honen bidez omendu nahi den Hualdek argitaratutako askotariko ikerlanak —Hualde (1991) tesitik hasita, baina inola ere ez hartara mugatuta— eta Hualde & Gaminde (1997) zehatza. Ezin utzizko dira, halaber, monografia dialektal-tako deskripzioak —fenomeno bokalikoak azaltzen abiatu ohi direnak— eta ikuspegi zabalagoz egindako lanak: gogoan ditut, besteren artean, *Euskal dialektologiaren hastapenak* (UEU 1987 [1983]) eta *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (Euskaltzaindia 2008-2020).

Ez eremu zabalak, baina eskualde, ibar edo herri jakin bateko hizkera bereizteko erabili dira, gehienbat, hiatoetako bokal-bilkuretan sortutako fenomenoak eta horien konbinazio bereizgarri eta, batzuetan, eksklusiboak. Zehazki, dialektologia sinkronikoaren esparruan deskribatu eta baliatu dira batez ere: euskal diakronisten lanetan ez dute hainbesteko lekurik hartu, funtsean gertakari modernotzat eta axalekotzat jo direlako, eta historiaurrean sakontzeko biderik ematen ez dutelako (FHV, 89).

Azken urteotan dialektologia diakronikoan egindako ikerlanek hein batean berretsi dute arestiko ikuspegia, baina zenbait banaketa eta ideia interesgarri agerrarazi dituzte; cf. Zuloaga (2020: § 4.5). Ikerketok erakutsi dute luzaroan *eufonia* izenpean multzokatu berrikuntza guztiak ez direla sorta bakar bateko osagai, ezpada elkarrengandik beregain, zein bere garaian eta geografian sortutako berrikuntzak.

Lan hau de Rijk (1970), Hualde (1991) eta Hualde & Gaminde (1997) saioetan aurkeztutako fenomeno nagusien ibilbide historikoa aztertzeko eta ezagutarazteko sorta zabalago bateko kide da. Epemugek eta gehieneko luzerak gaia mugarazi ostean, *-ubV* ereduko epentesia hartu dut aztergai; beraz, saio honek datuak eta irakurketak dakartza epentesi horrek tradizio idatzian dituen agerraldi zaharrenez eta Euskara Zaharretik (EZ hemendik aurrera)² Lehen Euskara Modernoaren (LEM hemendik aurrera) erpinera (-1840; ikus Urgell 2018) bitarteko bilakabideaz.

Garaian garai, hainbat hizkeratan lekukotu da *-ubV* epentesia, baina hizkera guztietan ez du ibilbide bera egin. Egun, Hego Euskal Herriko eskualde gutxi batzuetako hiztunek —eta, eremua zein den, adin batetik gorakoek— besterik ez dabilte: Sakana (Hualde 1991, 1996; Zuazo 2010), Donostia eta Beterri aldea (Camino 2000) eta Lapurdiko kostaldea (Duhalde 2023; Epelde 2011) aipatu dira sarrien, eta *EHH*Ak ere eremu horietan ematen du berrikuntza gehienetan.

² Periodizazioari dagokionez, Lakarrari jarraitzen diot; ikus azken bertsioa Lakarra *et al.* (2019) lanean.

2. Hiatoetako kontsonante epentetikoez

Euskal hiatoetan, /i/ eta /u/ goiko bokalen edo horien kide irristarien ondoren /a/, /e/ edo /o/ bokalak daudenean, hizkera batzuetan segmentu kontsonantiko bat sortu da geminazio-prozesu baten ondotik: «The insertion of these segments can be understood as a sort of gemination process in which skeletal slot is inserted in an empty onset position after a high vowel and associated with the features of the high vowel to its left» (Hualde 1991: 49). Fonotaktikari dagokionez eta Hualderi (1991) jarraikiz, kontsonante epentetikook berdin ager daitezke hitz-erroan eta morfemamugan —are klitikoetan sortutako bokal-bilkuretan ere—, baina ez eratorpen-atzizkiak eranstea; halaber, ezohiko dira beheko bokalak bigarrenkari direnean.

3. Epentesiaren ibilbide historikoaz

3.1. Euskal Herriko mendebala

3.1.1. Arabako testuak

Euskal Herriko mendebal zabaleko corpusean, Arabakoak eta EZkoak dira -ubV epentesiaren lehenengo adibideak; zehazki, Urduñako³ xvii. mendearen amaierako hiztegitxoan (Ros 2011) epentesia dago egon zitekeen bi adibideetan: *açero - calcaiduba* eta *brevas - ustapicuba*.⁴ Lehenago, eta Arabako ipar-mendebaleatik irten barik, Mendietaren *Quarta parte de los annales de Vizcaya* laneko 8 *beste asco ditubalak* fenomenoaren datazioa xvi. mendearen amaierara edo xvii.aren hasierara aurrera lezakeela pentsa liteke, baina besterik proposatzeko arrazoiak daude. Lehenik, egun BNEn gordetzen den eskuizkribua ez da Mendietarena, ezpada xviii. mendeko kopia (Ulibarri 2013: 179); alegia, hala -ubV nola hiatoetako beste fonetismo batzuk ugaritu eta hedatu ziren garaikoa. Bigarrenik, Mendietak bere eskuz idatzitako testuetan ez dago epentesiaren aztarnarik: *foruac* dakar koadro bateko idazkunak 1609an —berdin 1773ko kopiak—, eta *ibitua* ‘bare(tu)a’ eta *mendua* dakartza *Aerario* eskuizkribuak.

Urduñako berba-zerrendako adibideek ezaugarria inguru hartan izan bazela erakusten dute, baina oso isolaturik daude: hurrengo adibideak xviii. mendearen lehen urteetakoak dira Araban —eta mendebaleko euskaran—, eta kasu honetan ere asistematikoa da berrikuntza.

Barrutiak 294 *Lastasacuba* dakar, baina adibide isolatua da. Gainerako adibideak Arabako ipar-sortaldekoak eta mendearen amaierakoak dira: Albenizen lanak baditu aldaera epentesidunak (167 & 168 & 172 *orduba*, 167 & 172 *santuba*, 167 *bienaventuradubac*, 170 *orduban*, 172 *deseaduba*, 173 *santuban*), baina epentesirik gabeak ere badaude: 167 *afligidua*, 169 & 170 *becatuac*, 170 *pecatuquin*, 170 *ninduanari*, 171 *pecatuaigaitic*, 171 *ofendiduagaitic*, 172 (bitan) *ofendidua*. Jatorrian -o duten edo izan dezaketen formak baztertuta, epentesidunen eta epentesirik gabeen arteko kopu-

³ Administrazioz Bizkaiko hiri da Urduña, baina geografikoki Arabako ipar-mendebalean dagoela eta, ikuspuntu diatopikotik bertako eremu eta dinamikei loturik aztertu behar da.

⁴ Altzibarrek (1992: 476) *Viva Jesús*en bazela aipatu zuen, baina ez dut adibiderik aurkitu; cf. Ulibarri (2010).

rua nahikoa orekatua da Albenizengan. Arabako ekialdetik irten barik, aldiz, ez dut epentesirik aurkitu Gamizen olerkietan, eta Aiara aldeko testu modernoetan ere ez dut ikusi.

3.1.2. Bizkaiko testuak: tradizio modernoa (-1730-1800)

Bizkaiaz den bezainbatean, 1730eko hamarkadakoak eta Durangokoak dira aurkitu ditudan adibide zaharrenak. Are gehiago, tokiko hizkeraren ezaugarri izateaz gain, idazleen hautu ere izan zitezkeela islatzen dute idazle durangarrek.

Urkizuren *Virgína santísimien...* (1737) liburuak adibideak dakartza bai berbarroan, bai morfema-mugetan —8 *Egubénétan*, 9 *Egubastèñ*; 4 *zeinzubenzat*, 4 *zaituben*, 4 *zaitubenzat*, 5 *socorruba...*—, nahiz eta salbuespenak ere ugari diren: 1 *Santuena*, 3 *Liburua*, 4 *sagraduetan*, 6 *santua*, 28 *contua*, 33 *pecatuen...* Idazle beraren 1740ko kopletan 13 *gustubá* eta 46 *deusuben* daude, baina baita 18 *cerúetaco* ere, epentesirik gabe. Aldiz, herri bereko Arzadunen dotrinak (1731) ez dakar adibide bakar bat ere: hala garai linguistikoa nola Urkizuren lekukotasunak aintzat hartuta, idazleen hautuei egotz dakieke hain urte gutxiren buruan halako aldea agertzea. Arzadunek gordetzaila jokatu zuelakoa daukat, eta Durangoko euskara dialektalean bazatekeen ezaugarria baztertu zuelakoa.

Lan honetan langai den epentesia Lehenengo Euskara Modernoko idazleen errepertorio linguistiko-estilistikoko ezaugarri bihurtu zen, eta horrek zalantzak eragiten ditu 1730az geroztiko testuak lantzen direnean: ikertzaileak ez du ziur esaterik zer den tokiko hizkeraren isla eta zer egotzi behar zaien idazleen hautuei. Idazle ikasiei eta hautu linguistikoei loturik, ez dira ahaztekoak Larramendik Bizkaiko euskarari buruz jardutean aipatutako formak: «En el Bizcaíno, *ecárte-déuvat*, *ecárten déuze*, *ecárten-déuvagu*, *ecárten-déuve*» (1728: 121). Halaber, Larramendiren jarraitzaile Kardaberatzek pasarte interesgarria eman zuen *Eusqueraren berri onac* lanean (Altuna & Zulaika 2004 [1761]: 44), «Andre elorriorearen erretorica» izenekoa, non Elorrioko andre baten hizkera imitatu baitzuen. Pasarte horretan hirutan ageri da *cituban* adizkia, eta *segurubagoric* ere badago, baina pasarte urrun dago Elorrioko berbetaren transkripzioa izatetik; Elorrioko XVIII. mendeko bertso iraingarrietan (Arejita & Biddart 2010) ez dago *-ubVrik*.

XVIII. mende erdialdeko testuen artean ez dut berrikuntzaren alerik aurkitu Arzadunen dotrinaren bigarren edizioan (1758), Gandararen gabon-kantetan (1758-1762), eta Kardaberatzen (ca. 1762) eta Olaetxearen (1763) dotrinaren lehenengo edizioetan, nahiz eta Kardaberatzek jaurerriko euskararen emandako *Jesus, Maria eta Joseren...* (1764) lanean 20 *Egubenetan* eta 23 & 59 & 139 *ceuben* ageri diren. Azken idazle horien dotrinaren berrargitalpen eta egokitzapenei begiratuta, berriz, bestelakorik ikusten da.

Kardaberatzen dotrina birmoldatuta agertu zen 1783an, egilea hil ondotik eta portadan «Orain urteten dau eusquera apaindubaguan» zehaztapenarekin. Dirudienez, J. A. Mogel arduratu zen lana atontzeaz (Altzibar 1991a, 1991b; Arejita 2018), eta Markinako idazleen hizkera-eredura makurtu zuen. *-ubV*epentesiari dagokionez, ca. 1762ko eta 1783ko edizioak erkatzeak ezin argiago azaleratzen du epentesiaren sistematizazioa bigarrenean; cf. 1762ko 3 *santuagaz*, 3 *pecatuen*, 4 *santuaren*, 5 *ceruetan...* vs 1783ko 3 *santubagaz*, 3 *pecatubaren*, 4 *santubaren*, 4 *cerubetan...*

Olaetxearen dotrinari dagokionez, arestikoaren parekoa da bilakabidea. Lanak arrakasta bete izen bide zuen, hurrengo edizioak XVIII. mendean bertan argitaratu baitziren —datazio-arazoez, ikus Zuloaga (2020: 623-624)—, 1774-1775ean eta 1780an bigarrena eta hirugarrena, 1787an laugarrena, eta 1794an bosgarrena, dotrinaren bertsio laburtua, egilea hil baino urtebete lehenago argitaratua. Arestian aipatutakoekin bat, denboran aurrerago, testua lerratuago ageri da Markinako idazleen eredura, eta *-ubV*epentesia sistematikoa da bigarren ediziotik (1774) aurrera, 1. taulan ikusten den legez:

1. taula

Olaetxearen dotrinaren lehenengo edizioak

1763	1774-1775	1780	1787
4 cristinauaen	4 cristinaubaen	5 cristinaubaen	3 cristinaubaen
4 cristinauac	4 cristinaubac	5 christinaubac	3 christinaubac
4 bedeñcatua	4 bedeñcatuba	5 bedeñcatuba	3 bedeñcatuba
4 santuaen	4 santubaen	5 santubaen	3 santubaen
5 sua	4 suba	5 suba	3 suba
5 santuetaric	5 santubetaric	6 santubetaric	4 santubetaric
6 merecimentuacaz	5 merecimentubacaz	6 merecimentubacaz	4 merecimentubacaz
6 ceruetan	5 cerubetan	6 cerubetan	5 cerubetan
6 erreñua	5 erreñuba	7 erreñuba	5 erreñuba

Olaetxea ez zen josulaguna, ez zuten erbesteratu eta Kardaberatz baino beranduago hil zen, 1795ean: bere dotrinaren berrargitalpeni dagokienez, ageri diren aldaketak egileak berak egin edo baimendu zituela pentsa daiteke.

1750-1800 artean, Bizkai osoko idazleengan ageri da *-ubV*epentesia. Sartaldean, Sarriaren sermoietan (-1790) daude lehenengo adibideak, baina ez da inondik inora ere erabilera sistematikoa. Sorterriko euskaratik hurrago idatzitako sermoietan forma epentesidunak eta epentesibakoak txandakatzen ditu (Zuloaga 2010: 398-399). Sarriak, gainera, badu aparteko konplexutasunik, Markinako idazleenganako atxikimendua ageri baitu hautu linguistikoko batzuetan: sermoitegian epentesia ugaritzen da Markinako idazleen euskara-eredura hurbiltzen denean, baina Bizkai sartaldeko euskaratik hurbilagoko eredu linguistikoan idaztean ere ageri da tarteka.

Hautu estilistikoak eta tokiko hizkerak aurrez aurre jarrita, ez da aise ezer argirik erabakitzea, baina aldirietako lekukotasunak aintzat hartuta, arazo handirik gabe proposa daiteke Nerbioi ibarraren iparraldean ere bizirik egon zela epentesia sasoi batean. Inguruko lekukotasunei dagokienez, Orozkoko 1739ko otoitzek eta Zolloko 1770eko galdetegiak ez dute *-ubV*rik, baina Orozko eta Baranbio aldeko lekukotasun modernoago batzuek⁵ zein Barakaldoko toponimia modernoak eta Astigarraga basauriarraren sermoi batzuek (Zuloaga 2013: 607) epentesia sartalde muturreko hizkera batzuetan bizirik zegoela pentsarazten didate.

⁵ Ikus Azkuek Orozkon bildutako aditz-paradigmak, *apud* Gaminde (1983).

Jaurerriaren iparraldean, De la Quadrak (Bilbao 1997, 1998) Bermeo aldeko euskara imitatu zuela baina hizkerari landu-kutsu nabarmena dariola ahazteke, epentesiak ugari ageri dira bai hitz-erroan, bai morfema-mugan bai, hain ohiko ez izanik ere, klitikoetan, hala nola 2 *desterrubau* adibidean.

Bermeotik irten barik, *Errosariyo santuba...* (1780) liburuan ia sistematikoa da epentesia: 1 *Santuban*, 1 *moduban*, 1 *sagraduba*, 1 *pausuben*, etab.

Apur bat hegoalderago, Gandarak adibiderik ekarri ez arren, Gernikako gabonkantan (1801; Arejita 1993) sistematikoa da berrikuntza: 1-1 *ejercitubac*, 2-3 & 5-3 *munduban*, 3-3 *anguerubac*, 5-5 *pecatubac*... Epentesirik gabeko adibide bakarra 10-7 *proximuari* da.

Bizkaiko ipar-sortaldeko lehenengo testu luzeak XVIII. mendearen bigarren erdikoak dira, eta horietan sistematikoa da *-ubV*. Altzibarrekin (1992: 476-477) bat, epentesiak oinarri fonetikoa zuen Bizkaiko ipar-ekialdeko eta hurreko lurraldeetan, baina, halaber, Astarloaren, Humboldtten eta Mogelen iritzi eta hautu linguistikoen eragina hedatzen hasia zen Bizkaian ordurako, eta eragin hori are nabarmenagoa da jaurerriaren ekialdeko testuetan.

Apoita bolibartarraren bederatziruurenetan sistematikoa da epentesia: 1 *ainguerubaquin*, 1 & 7 & 8 & 9 *ceuduban*, 1 & 2 & 6 & 7 & 8 *mercementubac*, 1 *justubaren*, etab. Halaber, Iturriza berriztarraren Andramendiko idazkien bertsio eraberrituan badaude epentesiaren adibideak (1-3 & 2-4 *buruba*, 2-5 *escubetan*, 2-6 *ditubeela*), eta Abadiñoko gabonkantan (1804; Altzibar 1993) sistematikoa da: 4 *situben*, 17 *suben*, 22 *cerubac*, 34 *Aingueruben*...

3.1.3. Idazle kanonikoez (-1800-1850)

Nahiz eta hainbatetan aipatu den konbentzioz *literatur bizkaiera* deitu izan dena XIX. mendearen hasierako testuen bidez sortu zela, agerikoa da lan horiek inprimatu orduko garaiko hizkera-ereduen aldeko hautu orokorrak eginda zeudela, ondoko urteetako egokitzapenak egokitzapen. Hala XVIII. mendearen amaierako lan xumeek nola XIX.aren hasierako obra zabalagoek argiro islatzen dute Markinako idazleen joera/eredu (*hiper*)*herrikoiak* arrakasta bete izan zuela LEMaren finkatze-urteetan (ikus Urgell 1985, 2018).

Markinako euskararen jatortasuna aipatu zuen Humboldttek (1925 [1801]), eta bertako *eufoniak* erabiltzearen alde agertu ziren Astarloa (1883 [ante 1806]) eta J. A. Mogel (1881 [ca. 1802], 1803), nahiz eta ezaugarri hedadura murrizta ezagutu: «Se notará en el lenguaje de este diálogo, continuado en diversas conferencias, que muchas veces termino en *ja* y *ba* contra la costumbre de la mayor parte de los vizcainos, guipuzcoanos y vascos» zioen Mogelek (1881 [ca. 1802]: 17) *Peru Abarcaren* hitzaurrean; ondoren, ezaugarri horiek Markinan, Lekeition, Elorrioren eta hurreko eremuetan —Gipuzkoako herri mugakideak barne— baliatzen zirela zehaztu zuen. Astarloak, bestalde, *eufoniko* eta *dialektiko* epitetoak baliatu zituen, eten barik, halakoez aritzean; *-ubVz*, hala zioen:

Esta letra [b] es dialéctica usada por los vizcainos, siempre que á una voz acabada en *u* ha de seguirsele otra que empieza con vocal; y como la voz que antecede á dicha *b* es la radical del auxiliar que acaba en *u*, y la que sigue empieza con vocal, hé aquí la causa de la interposición de la dicha *b*. (Astarloa 1883 [ante 1806]: 730-731)

Hiatoetako bokal-elkarteetako beste fenomeno batzuk baino sistematikoago ageri da -ubVbai arestiko idazleen lanetan, bai ildo beretik aritu ziren beste batzuegan (F. Bartolome, P. J. Astarloa, B. Mogel, J. J. Mogel, J. P. Ulibarri, etab.; ikus Altzibar 1992: 487). Gogoratzekoa da Kardaberatzen dotrinaren 1783ko edizio eraldatuan -ubV sistematizatu zuela Mogelek, eta Olaetxearen dotrinaren ondoz ondoko edizioetan egin-dako aldaketetan lehenengoa izan zela epentesi berori ezartzea. Denboran are atzerago, Mogelen platika goiztiarretan arrunt ageri da berrikuntza; ikus Altzibar (1991a).

Bizkaiko idazleen artean, nahiz eta lan gehienak hil ostean argitaratu ziren, eza-gun da Añibarrok Markinako idazleen hautuak baztertu zituela garai batetik aurrera. Besteren artean, tokian tokiko fonetismoak alboratu eta eredu linguistiko orokorra-goaren alde egin zuen arratiarrak,⁶ «pues sobre no haber necesidad de mudar estas letras que el uso ha introducido, es más natural, y más fácil el no mudar, y alterar estas letras» (Villasante 1969 [ca. 1820]: 14).⁷ Ezagun da, halaber, Mogeli Markinako eus-kara larregi estutzea egotzi zioneko pasartea: «Cada vez achica Vmd. más el bascuence de Marqui[na] después de significar las inconexiones de mutaciones de *o* en *u*, *e* en *i*, *uba* y *ija*, añade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y que se borre del alfabeto vascongado» (*apud* Urgell 2001: xxx).

Añibarroren lanen artean, dena den, Urgellek (2001: xxxi) 1791-1793 aldera datatutako sermoi goiztiarrek interes berezia dute hemen, garai hartan markinarren ereduaren arabera aritu baitzen. Besteak beste, -ijV eta -ubVepentesiak aurki daitezke testu horietan, gerora argitaratutako *Escu-liburuan* (1802) ez bezala; ikus xehetasunak Altzibarren (1992: 476) eta, batez ere, Urgellen (2001: § 2.3.1) lanetan. Añibarroren lehenengo joera, azken batean, bete-betean lotzen zaio XVIII. mendearen amaieran (edo ordutik) Bizkai osoan zabalduetako moda linguistikoari, Markinakoen eredia jaurerri osora hedatu zuenari; ikus Zuloaga (2020: § 5.3.3).

Markinako idazleen hautu linguistikoaren arrakastak XIX. mende osoa eta XX.aren zati bat zeharkatu zituen, hein batean lan argitaratuen urriak lagunduta. Gizaldiaren erdialdera, Zabalak (1848), Astarloari jarraikiz, *eufonien* arabera berezi zituen Bizkaiko hizkerak, eta xehetasunok eman:⁸

Las [eufonías] más célebres son las marquinesas, llamadas por el señor Astarloa vizcainas, y de las que han usado tanto el mismo, como nuestros escritores, á escepcion de Añibarro, Cardaveraz y Arzadun. Ellas están en uso en la Villa de Marquina y pueblos de su circunferencia, y siguiendo por la raya de Guipuzcoa, se estiende también á los de esta provincia que hablan el dialecto vizcaino, y á otros muchos de ella y aún de Navarra. (Zabala 1848: 54)

Larramendiz geroztik argitaratutako lanei buruzko saiotoxoan arestiko ideia errepikatzen, salbuespenen zerrendara Busturiko katixima gehituta (Zabala 1856: 9).

⁶ Busturiko bikariotzako dotrinak (1802) ere hizkera-eredu zabalagoa dakar, *Bizcay barrucuentzat* prestatutakoa; ikus Rementeria (2018: 59-60).

⁷ Ikus, halaber, nahasteak saihestu nahiari emandako garrantzia: «Pero ocasionan alguna equivocación a los oyentes o lectores que no están acostumbrados a estas mudanzas: pues, para estos *ordia* es borracho; *Asia*, comenzado; *betia*, lo de siempre» (Villasante 1969 [ca. 1820]: 168). Ikus, halaber, Urgell (1985: § 3.2).

⁸ Aldiz, bere sermoietan (Villasante 1996) ez zuen epentesirik baliatu, *gaubV* (*gaubean*, *gauberdi-tic...*) eta *jaube* (*jaube*, *jaubeari*, *jaubeguei...*) aldaera orokorretan izan ezik.

Urte gutxiren buruan, eta arestian aipatutako idazleengandik edanda, Bonapartek aparteko estatusa aitortu zion Markinako idazleen euskara-moldeari, eta berau bihurtu —edo berretsi— zuen literatur bizkaieraren eredu. Pagolak eta bestek (1992) argitaratutako corpusari begiratuta, berehala ikusten da Uriartek prestatutako material «orokorrak» eredu horren arabera idatzi zituela; hemengo aztergaiari dagokionez, beraz, sistematikoki ageri da *-ubV*epentesia bai corpusean, bai Uriartek idatzitako bestelako lanetan.

Arian-arian hitzun arrunten hizkeratik desagertu zen *-ubV*epentesia, baita Markinan ere (Camino 2018: 718); alabaina, hiperbizkaieraren garai gorenean, idatziaren esparruan S. Aranek arestiko tradizioari jarraitu zion, eta Aranaren itzala Espainiako Gerra Zibilera bitarteko idazle abertzale eta garbizaleen testuetan ageri da (Altzibar 1992: 480).

3.2. Euskal Herriko erdialde zabala

3.2.1. Gipuzkoako testu modernoak (XVIII.-XIX. mendeak)

Euskal Herriko beste lurralde batzuetan legez, *-ubV*epentesiaren lehenengo adibideak Gipuzkoan EZtik LEMera bitarteko trantsizio-urteetakoak dira.

Probintzian aurkitu dudak adibide zaharrena Arrasateko 1705eko udal-bandoan dago (9 *sittuben*), nahiz eta aurkako adibideak ere badauden: 6 & 11 *barruan* eta 22 *buruaq*. Ezaugarri honi dagokionez, Eibarko testu zaharrak interesgarriak dira, lurraldearen mendebalean berrikuntza noiztsu gertatu zen ikusteko aukera ematen baitute: 1668ko eta 1685eko kopletan ez dago adibiderik, baina 1721ekoetan 15 *esconduba* ageri da. Mende laurden baten buruan, hiribildu bereko 1754ko udal-ordenantzetan sistematikoa da epentesia: 1 *atrebiduba*, 1 *adelantauba*, 1 *onrauba*, 1 *Abonauba*, etab.

Deba ibarraren inguruetan koka daitekeen testu bakar batean aurkitu dut epentesia Eibarko testuetan bezain indartsu: *Istoria sagraduco...* argitaragabeen (Ariztimuño & Uribe-Etxebarria prestatzen), non sistematikoa baita: 1r *capituluba*, 1r *munduba*, 1v *situban*, 1v *paraysuba*, 2r *Ainguerubac*, 2r *frutuba*... Dena den, Eibarko ordenantzak baino testu modernoagoa dirudi. Halaber, Oñatiko eskuizkribuetan sistematikoa eta Gatzagako 1862ko dotrinan —funtsean, hitz gramatikaletan— ugaria da epentesia, baina testuak beste garai linguistikoko batekoak dira.⁹

Hego-mendebaletik kanpoko lekukotasun gehienak berankorrakoak dira Gipuzkoan, XVIII. mendearen bigarren erdikoak oro har. Alde batetik, Muniberen *El borracho burladon* ez dira sistematikoak, baina batzuk badaude, batez ere obraren lehenengo hogeita bost orrialdeetan: 8 *sacristauba*, 14 *estubenac*, 16 *zubeac*, 18 (bitan) *zuben...* *Gabonsariac* lanean ere aurki daiteke aldaera epentesidunen bat; zehazki, «Copla jostalluac» izeneko sortan, non 35 *gastelaubarequin* baitago. Beste alde batetik, epentesia oso arrunta da *Grand tour* lanean (1772): 2r *altuwa*, 2r *aubetatic*, 2v *aubec*, 2v (bitan) *subec*...

Azpeitiko 1786ko administrazio-agiri batean (Madariaga *et al.* 2009) ere epentesia agertzea da arau: 34 *juban* ‘joan’ —bide batez, kasu honetan goiko bokala

⁹ Aita Palaciosen testuetan ere badagoela dio Altzibarrek (1992: 475).

bigarrenkari dela—; 24 *conventubetaco*, 24 *porticubetan*, 25 *permitituba*, 27 & 42-43 *castigatubac*, 35 *señalaturbetan*. Sistematikoki ez bada ere, Loiola aldeko XVIII. mendeko sermoi argitaragabe batzuetan ere badago epentesia (Segurola 2005: 259).

Goierriko testuetan bestelakoa da egoera eta nahasteak sor litezke, inguru hartan [aw] eta [ew] diptongoak idatziz *-a(u)b* eta *-e(u)b ematen direlako sistematikoki*. Hori dela eta, Zegamako dotrinako (1741) nahiz Otxoa Arinen laneko (1713) *christauba* forman epentesia dagoela pentsa liteke (cf. Altzibar 1992: 472, 613. oin-oharra),¹⁰ baina aintzat hartu behar da, alde batetik, bi testu horietan *kristau* berban besterik ez dela ageri *-ubV*, eta, bestalde, Zegamako dotrinan *kristaub* zela oinarria: cf. 36v *Nor da christaub fiel*, 37v *beti diraden christaub asco*.

Donostian eta Beterin oso bakanak dira epentesiaren adibideak XIX. mendea baino lehen. Lubietaren (1728) hiztegiak ez dakar adibiderik: 385 *christaubac* hitzean ikus liteke, baina Goierriko testuez esandakoak ere hemen balio dezake, 393 *christaub* ere badakarrelako. Halaber, Peperen eta Josefaren arteko gutunerian (1761) ez dago epentesirik. Donostiatik hegoaldera, Lasarteko 1716ko bertso-sortak (*ETZ*, § 18) eta Hernaniko 1726ko gutun batek (Carrión 1985) ez dakarte epentesirik, eta Larramendiren lanetan ere ez da ohiko:¹¹ San Agustín eguneko sermoian (1738) baliatu zuen, hirutan: *zeruba*, *santubaren* eta *famatubac* hitzetan. Bestalde, Gandarari igorritako gutunean *zeuwen* baliatu zuen, behin, Bizkaiko euskarara hurbildu nahian (Altuna & Lakarra 1990).

Donostian, XIX. mendearen hasieran arrunt da Etxagarairen bertsoetan (Zabala 1964): *mundubac*, *estaduban*, *paguba*, *orduban* eta abar daude, esaterako, 1813ko sorta batean. Mendearen bigarren erdian, bestalde, Bilintxen sorta ugaritan aurki daitezke epentesiak: 1-3 *dubena*, 1-4 *cerubaen*, 2-5 *cerubac*, 5-1 *duben*, 6-2 *dituben* nahiz 8-6 *dubena* «Pozez ta bildurrac» sortakoak dira; 2-1 *Partiduba*, 3-1 *zubela*, 5-5 *nuben* eta 5-9 *zuben* «Apaizaren cantac» sortakoak, etab. Garai hartako donostiar antzerkilarien lanetan ere arrunt askoa da epentesia —cf. Soroaren 1880ko *Gabon: dostirudia euscara nastuban eta eguintza bacarran* izenburua bera—, bai eta Berminghamen hasierako solasetan ere (Pérez-Gaztelu & Toledo 2021: 48-49). Hegoalderago, berbera da egoera: *AZTH* bilduma gainbegiratuta, Lasarteko auzo-alkateak Hernaniko alkateari igorritako gutunean (1829) *ygoituba* eta *dubela* daude, Hernaniko 1839ko bando batean *deklaratuba* eta *zitubenac*, Hernaniko bertako 1847ko bertso-sorta batean 1-8 *contuba*, 2-1 *Descuidatuba*, 5-3 *gaituben*, 5-6 *ainguerubac*...

Gipuzkoako ipar-ekialdeari helduta, Minondotarren gutunerian (Salaberri *et al.* 2021) ez dago adibiderik. Dirudenez, inguru hartan Irungo 1721eko udal-agirikoak dira *-ubV*epentesiaren lehenengo adibideak, baina ezaugarria ez da sistematikoa: 13 *contubac*, 15 *dañuba*, 37 *basubeq*, 37 *nuben vs* 10 *zuela*, 20 *ispillua*, 33 *escuetan*, 59 *liñuac* aipatzen dituzte Altunak eta Mirandak (1995: § 2.2). Hain zuzen, ez dirudi XVIII.-XIX. mendeetan berrikuntza erabat nagusitu zenik Irun eta Hondarribia

¹⁰ Mende baten buruan ba omen zegoen: «*Ezazube* por Goyerri está bien, aunque no agradará a los gipuzcoanos, por cuanto se ha escrito poco con eufónicas» ziotson Uriartek Bonaparteri (Ruiz de Larrinaga 1954: 74).

¹¹ Gipuzkoako XVIII.-XIX. testu landuez, ikus § 3.2.2.

aldeko euskaran. Ondarrak editatu eta 1783-1789 artean datatutako platiken artean, lehenengoan *-uber*en bost adibide daude, eta epentesirik gabeko berrogeita hamalau kasu. Bigarren platikan, aldiz, bestelakoak dira zenbeteoak: ager zitekeen hamabost alditan ez da ageri, baina beste berrogeita hamabi alditan badago *-ube*. Irungo testuok badute beste berezitasun bat: Ondarrak (1987: 290) ikusi bezala, epentesia forma gramatikaletan besterik ez dago; zehazki, izenordainetan eta adizkietan. Egoera hori errepikatzen da Hondarribiko 1778ko predikuan (ikus Letamendia & Sagarzazu 1992: 508): *niñubenián, ezaten duben* (bost aldiz), *eguin zuben, botatu zubenian...* daude alde batetik, eta *batzubequiñ, subec & zube* ‘zuek’, *zuben* ‘zuen’ beste alde batetik. Salbuespen bakarra *zuba* ‘sua’ da.

Irungo 1854ko erlijio-testu batean ere (ETZ, § 41) epentesia ez da sistematikoa, eta, XIX. mendearen bigarren erdian, Bonaparteren (1868: 7) arabera Irunen bazen, baina Hondarribian ez.

3.2.2. Gipuzkoako idazle kanonikoen joerak (XVIII.-XIX. mendeak)

Bizkaiko hainbat idazlek *-1775*az geroztik ez bezala, *literatur gipuzkera* gorpuztu zuten idazleek, oro har, ez zituzten tokian tokiko fonetismoak islatu edo/eta orokortu nahi izan. *-ubVri* dagokionez, badirudi Gipuzkoako mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan berankorra izan dela, baina agerrerarik eza idazleen hautuekin ere lot liteke LEMean. Batera nahiz bestera, XVIII. mendean ez dut alerik harrapatu Irazuztaren dotrinan, Loiolakoan (XVIII), Oikiakoan (*-1784* [1759]) eta Ubillosenean. Halaber, ez dut adibiderik ikusi Arakistainen eta Aldazabalen euskal testuetan, eta Otaegi beizamarrarengan.

Gipuzkeraz idatzitako testuetan, Larramendik San Agustin eguneko sermoian besterik ez zuen erabili *-ubV*, nahiz eta ezaugarria ezagutu; hortik kanpo, ikus *Hiztegi hirukoitzeko auba, aubena, lauba, chauba & chauva, üala & uvala* eta *zamauba & zabauba*, ustez Azpeiti aldean jasoak eta Urgellek (2001: §§ 8.4.2, 8.5.2, 258-259) andoaindarraren ikuspegi irekiarekin lotu zituenak.¹² Larramendiren osteko idazle handien artean ere epentesia ez da ohiko; XVIII. mendean ez dut adibiderik ikusi Mendibururen lanetan, eta Kardaberatzengan gehienbat idazlea hil ostean argitaratutako lanetan ageri dira, beti bakan.

XIX. mendearen hasieran arreta ematen dute Mogeldarrek, Bizkaiko euskaran aritu zirenean ez bezala, Gipuzkoako euskaraz egindako lanetan fonetismo lokalak baztertu baitzituzten: J. A. Mogelen *Eracasteac* (1800) lanean epentesi bakar bat aurki daiteke —3 *mandamentubac*—, eta B. Mogelen *Ipui onacen* (1804) bat ere ez dago. Hala zioen Bizenta Mogelek: «Ez arren erriertaric jaso bacoitzaren gogora itzac jocatzen ez badira. Guipuzcoan ere ez dabilta berdin [...] aiec esatea nai dute *burua, lecuá...* oec, *buruba, lecuba; duven, zuven; duen* edo *zuen* [...] Aurqueriac dira oec, ta guizon aitua ez dira gueldituco utzqueria oetan» (Mogel 1804: 91). Hain zuzen ere, ildo horretatik aritu ziren gipuzkoar idazle nagusiak XIX. mendean, nahiz eta tarteka aldaera epentesidunak agertu, agian idazleei eurei «ihes» eginda,

¹² Pomier hiztegi berankorragoan (cf. Lakarra 2023) ere badaude epentesiak; ikus Gómez-López & Zulaika (2020: 58) laneko zehaztapenak.

agian inprentan ezarrita. Agirre Asteasukoren *Eracusaldiac* (1823, 1850) sortan, 1850eko bigarren liburukian 249 *cristaubac* bakan bat dago, eta hirugarrenean 631 *buruban*. Halaber, Iturriagaren fabuletan (1842) 54 *pensamentuba* ageri da behin, baina Lardizabalen *Condairan* (1855) eta Gerrikoren erlijio-lanean (1858) ez dago alerik.

Iztuetaren lanak aberatsak dira: Gipuzkoako dantzen historiari buruzko saioan (1824) 145 *gaubeti goicera* dago behin, 178 *Mutubarekin* eta 179 *burubanekin* batera, baina azken bi horiek Aita Meagerren bertsoetakoak dira; halaber, *Euscaldun anciña-anciñaco...* (1826) lanean bildutako kantetan epentesia ageri da. *Condaira* (1847) konplexuagoa da, epentesia ugariago ageri baita, baina forma eta hitz gramatikalei loturik: *zeintzuki* eta *batzuki* (adb.: 16 *ceinzubei*, 40 *ceintzobetaco*, 55 *ceintzubetan...*; 195 *batzubetara*, 213 *batzubec...*), eta **edunen* adizkiei: 116 & 187 *ditubala*, 231 *nuben*.

Arestikoena ez bezalako kasua da J. C. Etxeberriarena eta J. B. Errorena. Lehenengoari dagokionez, epentesiaren berri bazuen, baina lana zein den, epentesia agertu edo falta egiten da. Hala, *Ongui bizitzeco...* (1824) liburuan *laubac* bakan bat besterik ez dago; *Devociozco...* (1821) mardulean, berriz, badira adibideak hor-han:¹³ 14 *subac*, 79 *gauba*, 204 *neguban*, 262 *villlaubac...*; *Jesusen imitacioco...* (1829) delakoan ugari ageri da epentesia sustantiboetan: Azala *libruba*, 1 *escubetan*, 3 *sagraduba*, 6 *burubac...* Erro dela eta, Altzibarrek (1992: 487) markatu legez ziurretik Astarloa maisuari jarraitzen ziolako, arrunt ageri da epentesia; *Observaciones filosóficas* lanaren euskarazko hitzurrekoak dira *arrotuba*, *apainduba*, *Ichuben*, *ezquendubala* eta *prestu-bequiñ*.

3.2.3. Nafarroako lekukotasunak

Nafarroa Garaiko eremu zabalean ez dirudi epentesia inoiz arrunt izan denik: besteak beste, ez dago -ubVrik Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkaribarren, ez eta Bonapartek *hego-nafarrera* deitutakoak besarkatzen duen eremu zabalean ere (ikus Camino 2003).¹⁴ Añibarrok (Villasante 1969 [1820]: 13 eta 167), Bizkai-Gipuzkoetan ez ezik, Nafarroako Bortzirietan ere bazela azaldu zuen XIX. mendearen hasieran, eta lurraldearen ipar-mendebalekoak dira epentesiaren lekukotasun gehienak Nafarroan; goiztiarrenak, XVII. mendearen azken laurdenekoak.

Reguerori (2019: § 3.1.1.4) jarraikiz, Berako olagizonaren gutunetan (1674, 1676) 1 *escussatuba*, 3 *contuban* eta 3 *duben* daude; orduz geroztik, arrunt lekukotu da epentesia Nafarroako ipar-mendebaleko testuetan, Lapurdiko eta Gipuzkoako zenbait eremu mugakidetan legez.¹⁵ M. Elizalde bere izekorekin trukaturako gutunetan (*post* 1677) 2r *duzuben*, 2r *emayezube*, 2v *salduba* eta 2v *dubela* daude —baita aurkako 2v *cargua* eta 2v *escuan* ere—, eta J. Elizalde etxalartarrak Mexikotik arre-

¹³ Testu konplexua da, ordea. Etxeberriak berak hala zioen (1821: 6): «Topatuco dute bear bada provinciaco eusquerarequin batian Nafarroacoa, Vizcayacoa, ta Arabacoa, cergatic guztietatic nabillela, ta beti corrica, escribitu det».

¹⁴ Horrek, ageriko da, barne biltzen ditu XVIII.-XIX. mendeetako nafar idazle nagusietarik bi: F. Elizalde eta J. Lizarraga Elkanokoa.

¹⁵ Alta, Ignazio Bergara goizuetarraren gutunetan (Salaberri *et al.* 2023) ez dago adibiderik.

bari igorritako gutunetako batean (1699) 2r *zuben* dago. Berrikuntzak luzaroan iraun zuen bizirik Nafarroako ipar-mendebalean: Etxalarren bertan, Sanzberroren testuan (1749) 1 *auban*, 1 *zuben*, 2 *santubac*, 2 *santuven* eta 3 *mandamentubac* daude (Reguero 2017: 7), eta mendearen amaierako eta XIX. gizaldiko testuetan ere arrunt da epentesia (Santazilia & Taberna 2019: 836-837).

Hegoalderago, Sunbillako XIX. mendeko bertso-sorta erlijioso batek (ETZ, § 42) *escuba* dakar leloan, eta Bertizaranako eskuizkribuen artean Oierregiko erlijio-kantuetan (Ondarra 1989) *suban* eta *subac* bakan bi daude. Bestalde, XIX. mendearen amaieran arreta ematen du Etxeberri abade elizondoarrak Zugarramurdiko euskarara hurbilduaz idatzitako lehenengo sermoiak, *-ubV* arrunt izateaz gain (cf. *burubaren*, *eztizubegu*, *errañen dubena*, *garaituba...*), oro har espero ez den kasuetan ere ugari agertzen baita.¹⁶ Zehazki, *o > u* / *_V* gertatu ondotik: *Jaungoicubac*, *gogubac*, *urbille-necubetanic*, *artecubac*, *besubac...* Idazlea bertakoa ez zela eta adibideon ugaritasuna ikusita, hiperzuzenketa-kasua dirudi; alegia, idazleak <u> ondotik sistematizatu zuela. Ikus Montoya (2003: 44) Zugarramurdiko eta Urdazubiko XIX. mendeko testuen fidagarritasun ezaz ezaugarri honi dagokionez.¹⁷

Adibideak dakartzaten testuekin batera, Bortzirietako XVIII. mendeko beste idazle/testu batzuetan ez dago epentesirik: Mikelestorena lesakarraren kasuan (Reguero 2017: 7), Berako lurri buruzko 1716ko agiri batean eta 1785eko Larrungo kapilautzaren gaineko gutunean (Santazilia & Taberna 2019: 638).

Bestalde, merezi du Sakana aldeko testuak aipatzea, kronologikoki duten interesarik: gaur egunera arte iraun du *-ubV* epentesiak Sakanako hiztun batzuen euskarari, baina inguru hartako testu zaharrenetan ez dago adibiderik: Altsasuko/Burundako -1648ko auzibidean «ez da eufoniarik ageri» (Urrestarazu 2022: 212); *-ubVri* dagokionez, cf. 18v *prestuagoren*, 93 *honrraduagoaren*, 225v *honrratuaren*, 250r *honrratuaren*, 301 *honrratuagoren*, 302r *honrratuaren*. Badirudi berrikuntza XVIII. mendean-edo sortu edo hedatu zela eremu hartan, XIX. mendearen lehenengo erdiko testuetan indar bizia baitu: cf. Satrustegik (ETZ, § 37) Aralar mendiaren hegoaldean kokatutako 1833ko sermoietako *moduban*, *jaquinsubac*, *entendimentuban*, *contentuba...* edo Lakuntzako 1838ko predikuko *Erreñuba*, *bedicatuba*, *orduban*, etab. (ETZ, § 39).

3.2.4. *Ipar Euskal Herriko lekukotasunak*

Gipuzkoatik eskuin eta Bidasoa ibaiatz harago, Ipar Euskal Herrian Lapurdiko kostaldean besterik ez da ageri *-ubV*: XVI. mendearen amaierako espioitza-gutunetan (Floristán 1993) ez dut adibiderik ikusi, baina XVII. mendearen hasierako testuetan badaude; hain zuzen, horiek dira corpus historikoko adibide zaharrenak.

Voltoireren *L'interpretcean* (-1620) aurkitu ditut 5 *buruban*, 53 & 81 *souba* 'sua' eta 89 *lacouba* 'lakua' (Lakarra 1997), eta Etxeberri Dorreren laneko (1677) portada-

¹⁶ Abade berak 1857an Lesakako euskara imitatuaz idatzitako testuetan (ETZ, § 43) arrunt da epentesia.

¹⁷ Fidagarritasun arazotsuko bestelako testuak ere badaude ETZn, hala nola Muruzabalgo testu-bilduma, non epentesia tarteka lekukotzen baita —bereziki 1761eko testuan (cf. *ditubenian*, *escubetan*, *orduban*, *santubac...*)—, eta López de Luzuriaga arabarrarena.

koak eta lehenengo orrialdeetakoak dira 1 *abançatuba*, 3 *atheratuba*, 3 *seindubaren*, 3 *contubac*, 3 *Ternubacoac*, 3 *iscribatubac*, 3 *maistrubençat edo pillotubentçat* eta 3 *ditubella*. Azken horren garaikidea da Urruña eta Hondarribia arteko gutuneria (1680), non bilakabidea azaltzen baita; zehazki, urruñarrek igorritako lehenengo gutunean daude 1 & 2 & 12 & 15 & 16 & 31 *zuben*, 13 *zubey*, 19 *dusubela*, 20 *estatuban* eta 34 *juratubac* (ConTAV, 132).

Ipar Euskal Herrian —eta, zehatzago, Lapurdin— kokatu izan diren eta ahozko euskaratik hurreko materialen artean, ezin utzizkoak dira *Glossaria vasco-islandica* deituriko materialak (Bakker *et al.* 1991): bertako lehenengo hitz-zerrendan ohiko da epentesia (cf. 4 *esconduba*, 8 *mastruba*, 9 *pilotuba*, 12 *contromastruba*...); alabaina, bigarrenean ez dago halakorik (cf. 35 *dirua*, 54 *sua*, 61 *amua*, 86 *burdua* ‘burua’, 95 *evaskua* ‘eskua’...).

Lapurdiko kostaldeko XVIII. mendeko bizilagunen testuetan ere ohikoa da epentesia: Ziburuko 1747-1751ko administrazio-testu batzuetan (Santazilia & Taberna 2019: 836) eta Donibane Lohizuneko alkate Tausinek Berara igorritako gutunetan (1788; ETZ, § 34) ez ezik —*cuben*, *dubela*, *çubelaric*, *buruba*...—, *Le Dauphin* itsasontzikoetan ere badago, XVII.-XVIII. mendeetako lapurtar idazle nagusi gehienen obra inprimatuetan ez bezala. Padilla-Moyanok (2015: 178) zioenez, kostaldetik hurrerago, epentesia indartsuago ageri da, eta Hendaiak eta Donibane Lohizunek dirudite foku nagusiak. Esate baterako, Marie d’Etcheverryk Hendaiatik 1757/2/4an igorritako gutunak *iduri dubena* eta *conseluwaq* dakartza, eta Gacina de Biscarrondok herri beretik 1757/2/12an bidalitakoak *etxituba* & *esxituba*, *cuben* ‘zuen’ & *cubec* ‘zuek’, *eztuzube* eta *penatuba*. Halaber, Mari Darburuk 1757/3/13an Donibane Lohizunetik emandako gutun luzexkan *defuntubarequin*, *siricubarequin*, *baixuben*, *premubarequin*... ageri dira.

-ubV epentesia dakarten testu modernoagoen artean Mihuraren *Andredena Mariaren imitacionea* (1778) eta, are geroago, Websterren ipuinak aipatzen ditu Padilla-Moyanok, eta horiei Haranaderren adibide bakanak gehi dakizkieke; *Gudu izpirituala* lanean 54 *fermubago* bakan bat aurkitu dut, eta *Jesu Christoren evangelio saindua* lanean 105 *eguberdia* eta 552 *eguberditic* alde batetik, eta 159 (bitan) & 160 & 271 *ceuben* beste alde batetik. Urte donibandarrak, halaber, «hiztegian *basiumen* ordain gisa *mussua* dakarrelarik, honela dio ondoren: «*dic* mussuba» (III, f. 275)» (Letamendia & Sagarzazu 1992: 509).

XVIII. mendean bertan Lapurdiko notaritzagiriak erantsitako euskarazko testuen artean (Elosegi 2018) ez sistematikoki, baina arrunt ageri da epentesia kostatarrengan: cf. MH-10 (1749) *hartzien dubena*, *abisatuba*, *fornituco dituben*, *obligatuba*...; MH-46 *neurthuba*; MH-48 *cantaxen dubena*; D-01 *buruban*...

Santaziliak eta Tabernak (2019: 836), bestalde, Donibane Lohizunetik Berara 1788an igorritako gutun argitaragabe batzuetan ere epentesia badagoela baieztatzen dute. Hain zuzen, Bonaparteren [BDV m/s Bv75] eskuizkribuko datuek berresten dute Donibane Lohizunen ugari zerabilteela epentesia, bai eta Ziburun, Azkainen eta Biriatuan ere (Duhalde 2019: 154, 2023: § 6.1.3.4.3), nahiz eta Kamusarrik, adibidez, halakorik ez islatu.

Bestelako lekukotasunen artean, aipagarria da Bidarteko eliz atariaren aurreko hiltartitza (ikus 1. irudia), urtearen adierazpenik gabekoa: HAV DA BVTVRENECO IARLEQVBA idazkuna dio, epentesi eta guzti:



1. irudia

Bidarteko (Lapurdi) eliz atariko hilartitza

4. Ondorioak

Sarreran aipatu legez, bilakabide edo historia gorabeheratsuko berrikuntza da *-ubV* epentesia. Lehenik, aldaketa beregainki gertatu zen Hego Euskal Herriko eta Lapurdiko kostaldeko hizkeretan, eta beregaintasun horrek geografia ez ezik, kronologia ere ukitzen du. Bigarrenik, epentesia idazleen hautu-gai izan da historikoki, eta horrek fidagarritasun-arazoak eragiten ditu tokiko errealitatea aztertu nahi delarik. Hirugarrenik, sortu zen ber desagertu da berrikuntza hizkera gehienetatik, bokal-bilkuretako gainerako fenomenoak —edo fenomeno gehienak— ez bezala: aurreko mendeetako corpusak Bizkaiko hainbat hizkeratan, Gipuzkoako mendebalean, erdialdean eta ipar-ekialdean, Lapurdiko kostaldean eta Nafarroako ipar-mendebalean lekukotzen du; gaur egun, aldiz, Sakanan, Beterri aldeko hizkera batzuetan eta Lapurdiko kostaldean —azken arrastoak— besterik ez da entzuten.

Kronologiari dagokionez, euskara historikoko berrikuntza da *-ubV* epentesia; zehazki, EZkoa. Adibide zaharrenak Lapurdiko kostaldekoak eta xvii. mendearen hasierakoak dira, Voltoirerenak (~1620); Arabako mendebaleko eta Nafarroako ipar-mendebaleko lehenengo adibideak garai linguistiko berekoak dira, xvii. mendearen amaierakoak. Orduz geroztik, lurraldea eta hizkera zein diren, adibideen kronologia goiztiarra edo berankorra da:

- Lapurdiko kostaldean eta Nafarroako ipar-mendebalean halako jarraitutasun bat dago lehenengo lekukotasunetatik gutxienez Bigarren Euskara Modernora arte: *-ubV* arrunt erabili zela dirudi, gerora galduz joan bada ere.

- Bizkaiko ekialdean, Debagoienean, Beterrin eta Irun aldean EZtik LEMera bi-tarteko trantsizio-urteetan (xviii. mendearen lehen erdian) ageri da epentesia lehenengoz.
- Zenbait eremutan are berankorragoa dirudi epentesiak: Bizkaiko erdialdean eta mendebalean, Arabako ipar-ekialdean eta Gipuzkoako Urola ibarrean xviii. mendearen bigarren erdian azaltzen da lehenengoz, eta Donostian eta Sakanan xix. mendeetako testuetan, indar biziz agertu ere.

«Garapenaren teoria»-ri jarraikiz (Fabb 2010), *-ubV* epentesia hautatu, indartu eta hedatu zuten idazleek euskara herriko(i)et)an bizirik zegoen ezaugarri bat marka-tzaile linguistiko-estilistiko bihurtu zuten, eta horrek zaildu egiten du, ezaugarriaren agerrera-urteak eta idazle gehienak noizkoak diren aintzat hartuta, LEMeko adibi-deak zeren isla diren ikustea eta erabakitzea.

Bizkaian argi dago xviii. mendearen bigarren erdian hedatzen hasi zela Marki-nako euskalari eta idazleen eredu linguistikoa: orduz geroztik arian-arian indartu eta zabaldu zen eredu hura, eta xix. mendearen lehenengo bi hamarkadetako lan inprimatu nagusien bidez finkatu, aurkari bakar Añibarro heldua(goa) zuela. Gai-nerako lurralde eta euskalkietan, aldiz, aurkakoa izan zen joera nagusia: Larramen-direngandik hasita, gipuzkoar idazle kanoniko gehienek —salbuespentzat jo dai-tezke Erro eta, hein batean, Etxeberria— eredu supralokala hobetsi zuten beren liburuetan, are epentesia garai hartan nahiz gerora erabili den eremuetan ere. Bi-koiztasun hori ezin argiago uzten dute Lapurdiko kostaldeko lekukotasunek, Padi-lla-Moyanok (2015) erakutsi bezala, oro har xviii.-xix. mendeetako testu inprima-tuetan ez baitago epentesiaren erabilera zabalik, nahiz eta dokumentu pribatuetan (gutunak, notaritza-agiriak, hiltartitzak...) eta euskara-islandiera hitz-zerrendetan arrunt agertu.

Sarreran (§ 1) aurreratu legez, lan honetan *-ubV* ereduko epentesiaren bilakabide diakronikoa aztertu dut, indar berezia eginez lurraldekako lehenengo lekukotasunen aurkikuntzan, lehenik, eta LEMaren barneko erabilera-joera historiko nagusien des-kripzioan, bigarrenik. Alta, lan honen mugetatik kanpo geratu da, mugatu eta la-burtu beharrez —baina etorkizun hurbilean egiteko esperantzaz—, xix. mendeko —eta, bereziki, bigarren erdiko eta Bigarren Euskara Modernoko— corpus zabala, berriazko azterketa behar duena eta, besteak beste xix.-xx. mendeetako ikerketa dia-lektologikoak barne biltzeaz gain, aurreko hainbat egileren euskara-ereduen sustrai herrikoiez edo hautu estilistikoez gehiago jakiteko aukera eman dezakeena.

Bibliografia

- Altuna, Fidel & Paloma Miranda. 1995. Irungo Udaleko zazpi agiri euskaraz (1721). *ASJU* 29(2-3). 527-544.
- Altuna, Patxi & Joseba A. Lakarra. 1990. *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Donostia: Andoaingo Udala.
- Altuna, Patxi & Esther Zulaika (arg.). 2004. *Agustin Kardaberaz. Eusqueraren berri onak (1761). Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Altzibar, Xabier. 1991a. J. A. Mogelen hasierako idazkera: hiru platika eta 1783ko dotrina. *ASJU* 25(2). 623-650.

- Altzibar, Xabier. 1991b. Kardaberazzen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 259-276. Donostia: GFA & UPV/EHU.
- Altzibar, Xabier. 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bilbo: BFA.
- Altzibar, Xabier. 1993. Durangaldeko AndreMari- eta Gabon-kanta zahar batzuk zor-zikoan. *Litterae Vasconicae* 6. 35-55.
- Arejita, Adolfo. 1993. 1801. urteko Gernikako Gabon-kanta bat. *Litterae vasconicae* 6. 9-34.
- Arejita, Adolfo. 2018. Bizkaierazko dotrinen liburuari atze-oharrak. In Jose Maria Rementeria, *Euskerazko dotrinak. I. Bizkaieraz*, 242-262. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Arejita, Adolfo & Asier Bidart. 2010. Elorrioko ziri-bertsotzatzen izkribu hondarrak XVIII. mendean. *Litterae vasconicae* 11. 265-275.
- Ariztimuño, Borja & Oxel Uribe-Etxebarria. Prestatzen. *Istoria sagraduco...* (edizioa).
- Astarloa, Pedro Pablo. 1883 [ante 1806]. *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*. Bilbo: Pedro Velasco.
- AZTH = Trebiño (2001).
- Bakker, Peter, Gidor Bilbao, Nicolaas G. H. Deen & José I. Hualde. 1991. Basque Pidgins in Iceland and Canada (*ASJUren gehigarriak* 23). Donostia: GFA.
- Bilbao, Gidor. 1997. De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak: I. Doctrina christinaubarena. *ASJU* 31(1). 247-336.
- Bilbao, Gidor. 1998. De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II). *ASJU* 32(1). 165-229.
- Bonaparte, Louis-L. 1862. *Langue basque et langues finnoises*. Londres: [l.g.].
- Bonaparte, Louis-L. 1868. *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes*. Eskuizkribua.
- Camino, Iñaki. 2000. Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko. In Koldo Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, 51-81. Gasteiz: AFA.
- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Camino, Iñaki. 2018. Bigarren Euskara Modernoa. In Iván Igartua, Joaquín Gorrotxategi & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 659-735. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Carrión, Ignacio. 1985. Una carta de 1726 escrita en euskera procedente del archivo municipal de Hernani. *BAP* 41. 372-374.
- ConTAV = Sarasola (1983).
- Duhalde, Maitena. 2019. Donibane Lohizuneko eskararen ahoskera: Louis-Lucien Bonaparteren inkestak. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 151-163. Bilbo: UPV/EHU.
- Duhalde, Maitena. 2023. *Lapurdikoko itsas hegiko euskararen azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego-tesia.
- EHHA = Euskaltzaindia (2008-2020).
- Elordui, Agurtzane. 1995. Bonapartek osaturiko bizkaieraren sailkapenak: iturriak eta erizpideak. In Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua*, 433-463. Donostia: GFA & UPV/EHU.
- Elosegi, Xabier. 2018. *Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean*. Senpere: Lapurdi 1609 elkartea.
- Epelde, Irantzu. 2011. Lapurdiko itsasegiko euskararen ahoskera: Donibane Lohizune. In Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrotxategi & Blanca Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Kate-draren II. Biltzarra*, 307-321. Gasteiz: UPV/EHU.

- Etxeberria, Juan Cruz. 1821. *Devociozco vicitzaraco sarrera*. Tolosa: Francisco de la Lama. ETZ = Satrustegi (1987).
- Euskaltzaindia. 2008-2020. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fabb, Nigel. 2010. Is literary language a development of ordinary language?. *Lingua* 120. 1219-1232.
- FHV = Mitxelena (1977).
- Floristán, José Manuel. 1993. Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos. *Fontes Linguae Vasconum* 63. 177-220.
- Gaminde, Iñaki. 1983. Orozkoko aditza. *FLV* 42. 37-96.
- Gómez-López, Ricardo & Josu Zulaika. 2020. *El vocabulario Pomier*. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José I. 1991. *Basque phonology*. Londres & New York: Routledge.
- Hualde, José I. 1996. Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriak. *Uztaro* 18. 48-60.
- Hualde, José I. & Iñaki Gaminde. 1997. Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. *ASJU* 31(1). 211-245.
- Humboldt, Alexander. 1925 [1801]. *Diario del viaje vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Lakarra, Joseba A. 1997. Hizkuntza eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interpréter ou Traduction du François, Espagnol & Basque (-1620)*. *ASJU* 31(1). 1-66.
- Lakarra, Joseba A. 2023. *Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*. Filologia ala hil. In Iván Igartua & Jesús A. Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces: escritos en homenaje a Jon Juaristi*, 401-460. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Larramendi, Manuel. 1728. *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España*. Salamanca: Eugenio Garcia de Honorato.
- Letamendia, Juan A. & Txomin Sagarzazu. 1992. Hondarrribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778). In Gotzon Aurrekoetxea & Xarles Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra (IKER 7)*, 497-533. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Madariaga Juan, José A. Azpiazu & Jerardo Elortza. 2009. XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk. *FLV* 110. 5-45.
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: GFA (1. argit., 1961; berrarg. OC 6).
- Mogel, Juan A. 1800. *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*. Iruñea: Ezquerroren alarguna.
- Mogel, Juan A. 1881 [ca. 1802]. *Peru Abarca*. Durango: J. de Elizalde.
- Mogel, Juan A. 1803. *Confesino ona*. Gasteiz: Fermín Larumbe.
- Mogel, Bizenta. 1804. *Ipui onac*. Donostia: Antonio Undiano.
- Montoya, Estibalitz. 2003. *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego-tesia.
- Ondarra, Frantzisko. 1987. Dos pláticas en vascuence del siglo XVIII. *FLV* 50. 281-316.
- Ondarra, Frantzisko. 1989. Nafarroako Bertizaranan aurkitutako euskal testuak. *ASJU* 23(3). 706-756.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2015. A new view of Basque through eighteenth-century correspondence. In Eivind Torgersen, Stian Hårstad, Brit Mæhlum & Unn Røyneland (arg.), *Language Variation - European Perspectives V (Studies in Language Variation 17)*, 169-182. Amsterdam: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/silv.17.13pad>.
- Pagola, Rosa M. (koord.). 1992. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: DU.

- Pérez-Gaztelu, Elixabete & Ana Toledo. 2020. *J. Berminghamen solasak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Reguero, Urtzi. 2017. xviii. mende erdialdeko Etxalarko dotrina. *FLV* 124. 355-367.
- Reguero, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara, Nafarroako euskarazko testu zaharretan barena (1416-1750) (ASJUren Gehigarriak 71)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Rementería, Jose M. 2018. *Euskerazko dotrinak I. Bizkaiera*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Rijk, Rudolph P. G. de. 1970. Vowel interaction in Bizcayan Basque. *FLV* 5. 149-167.
- Ros, Ander. 2011. Nerbioi goieneko euskararako material gehiago: xvii. mende amaierako Urduñako berba zerrenda bat. *ASJU* 45(1). 387-402.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1954. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, con notas bio-bibliográficas. *ASJU* 1. 35-106.
- Salaberri, Patxi, Juan J. Zubiri & Iker Salaberri. 2021. *Jose Ramón Minondo goizuetarraren gutunak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, Patxi, Juan J. Zubiri & Iker Salaberri. 2023. *Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Santazilia, Ekaitz & Mikel Taberna. 2019. Uscaldunac garen ezquero. Berako euskal testu administratibo berri bat (1822). *Euskera* 64. 811-869.
- Sarasola, Ibon. 1983. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU* 17. 69-212.
- Satrústegi, José M. 1987. *Euskal testu zaharrak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Segurola, Koro. 2005. xviii. mendeko autore ezezagun bat. *Lapurdum* 9. 243-282.
- Trebiño, Imanol. 2001. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Gasteiz: IVAP.
- UEU. 1987 [1983]. *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Bilbo: UEU.
- Ulibarri, Koldo. 2010. *Viva Jesús* dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU* 44(2). 41-154.
- Ulibarri, Koldo. 2013. Un nuevo texto para la historiografía vizcaína: *Aerario de la hidalguía y nobleza española y plaza de armas de Vizcaya* por Francisco Mendieta, ayalés. *Oihenart* 28. 173-191.
- Urgell, Blanca. 1985. Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*. *ASJU* 19(1). 65-117.
- Urgell, Blanca (arg.). 2001. *Fr. Pedro Antonio Añibarro. Geroko gero. Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.). *Euskararen historia*, 549-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urrestarazu, Iñigo. 2022. Auzibidea Burundakoa da, eta euskara?. In Dorota Krajewska, Sergio Monforte & Eneko Zuloaga (arg.), *Aziti bibia: euskal filologia eta hizkuntzalari-tzaren adarrak*, 203-227. Bilbo: UPV/EHU.
- Villasante, Luis (arg.). 1969 [1820]. Fr. Pedro A. de Añibarro. *Gramática bascongada*. Donostia: GFA.
- Villasante, Luis (arg.). 1996. *J. M. Zabalaren sermoiak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zabala, Antonio. 1964. *J. V. Echagaray. Festara: bere bertso guztien bilduma*. Tolosa: Auspoa.
- Zabala, Juan M. 1848. *El verbo regular vascongado*. Donostia: I. R. Baroja.
- Zabala, Juan M. 1856. *Noticia de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*. Donostia: I. R. Baroja.
- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Bilbo: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernu.

- Zuloaga, Eneko. 2010. Nerbioi ibarreko euskara XVIII. eta XIX. mendeetan (I): Bizente Sarriaren bizkaierazko sermoiak. *ASJU* 44(2). 393-435.
- Zuloaga, Eneko. 2013. Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta *Viva Jesús* testuaren jatorriaz. In Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, 593-610. Gasteiz: UPV/EHU.
- Zuloaga, Eneko. 2020. *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego-tesia.

